

CEDERNA GARALUR ELKARTEA

FEADER 2007-2013 LGPren 4. ardatzeko (LEADER) toki garapenerako estrategien barnean, 2010erako laguntza-deialdian eta arauetan izandako hutsen zuzenketa.

FEADER 2007-2013 LGPren 4. ardatzeko (LEADER) toki garapenerako estrategien barnean, 2010erako laguntza-deialdian eta arauetan izandako hutsen zuzenketa. 2010erako aipatu deialdia eta arauak 2010eko ekainaren 4eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 68. zenbakian, eman zen argitara (iragarkiaren kodea: P1009366). Edukia, berriz, Cederna Garalur Elkartearen webgunean (www.cederna.es) eman zen argitara, *zuzenketak-aldaketak* eginda:

1. zuzenketa:

2. ERANSKINEKO 1. puntuko 2. atalean, 'LAGUNTZA ESKAERAREKIN BATERA DOAN DOKUMENTAZIOA' izenekoan.

Esaten denean:

.2. Proposatutako ekintza burutzeko osoko bilkuraren akordioa (udalei dagokienez).

Hau esan behar du:

. 2. Proposatutako ekintza burutzea onartzeko, eskumena duen organoaren akordioa organo (osoko bilkuraren erabakia edo alkatetzaren ebazpena eta ondoren osoko bilkurak berrestea toki-entitateei dagokienez).

2. zuzenketa:

'ESKAERAREKIN BATERA JOANEN DEN PROIEKTUA' eranskineko o) atalean.

Esaten denean:

.o). Inbertsio planean deskribatutako lanen eta instalazioen inguruko proiektu teknikoa. Berau, 60.000 eurotik gorako inbertsioetan, gaian tituludun eskudun batek sinatua, eta horren lanbide elkargoak bisatua egonen da. Honako datuok jasoko ditu gutxienez:

Hau esan behar du:

.o). Inbertsio-planean deskribatutako lanen eta instalazioen gaineko proiektu teknikoa; berau, 60.000 eurotik gorako inbertsioetarako, gaian eskumena duen tituludun batek sinatu beharko du, eta horren lanbide-elkargoak bisa jarri beharko dio (bigarren baldintza horri dagokionez, baimena ematen zaie Landa Garapenerako Departamentuak egoki deritzen toki-entitateei eta sustatzaile pribatuei –salbuespen-egoeren arabera- proiektua onartu izanaren berri eman eta ondofik aurkezteko). Proiektuak honako agiriak jasoko ditu, gutxienez:

- Lanen edo hobekuntzen deskribapena, planoak, kalkulu teknikoak, aurrekontuak eta proiektuak beharrezkoak dituen bestelako kapituluak jasoko dituen oroitza txostena.
- Inbertsioak makinerian eta ekipoetan.
- Proiektu, aholkularitza, eta patenteak eta lizentziak erosteko gastuak.

Hala dagokionean, proiektuarekin batera aurkeztuko den dokumentazioa:

- Hala dagokionean, Nafarroako Katastrofik, lanak edo hobekuntzak kokatuko diren lursail zedulen fotokopia, eta horretan aipatu lanak edo hobekuntzak non joanen diren adieraziko da.
- Udalaren obra lizentzia edo horren eskaera, beharrezkoa denean.
- Inbertsioaren barnean eraikin erabiliak erostea dagoenean, tasatzaile independente baten ziurtagiria, erosketa prezioa merkatu prezioa baino handiagoa ez dela egiaztatuko duena. Tasazioan lokalaren prezioa eta lokala kokatzen den lursailen prezioa bereiziko da.
- Errentan hartutako finka nahiz orubeetan diruz lagun daitezkeen inbertsioak egiten direnean: errentamendu kontratuaren kopia (errentamenduaren iraupena, gutxienez, inbertsioa amortizatzeke epearen adinakoa izanen da).
- Ingurumen artoko baimen integratua edo jarduera sailkatuko udal lizentzia, jarduera ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen eraginpean dagoenean.

Antsoainen, 2010eko uztailaren 30ean.- Luis Garate Jimenez, presidentea.